## MENDI IRTEERAK

● **BARAKALDO**

**Barakaldoko ibai, mendi eta arkitektura** ezagutzeko asmoz, bertako elkarte kulturalek hiru ibilaldi antolatu dituzte uratarrilaren 18, 19 eta 20erako. Informazio gehiago Gurutzetako Kultur Etxean.

● **BILBO**

**Tologorri-Txarlazo zeharkaldia** antolatu du Eguzki Lorea Boluetako Mendi Taldeak urtarrilaren 17rako. Informazio gehiago bertan eta telefono zenbaki honetan: ☎ 412 27 38.

● **HERNANI**

**Mondarrain mendira** ibilaldia antolatu du Mendiriz-Mendi elkarteak urtarrilaren 17rako. Izen emateko epea bihar amaituko da.




## ERAKUSKETAK

● **ANGELU**

**Pompidou Galeria.** Henri Lauga margolariaren erakusketa. Urtarrilaren 30era arte.

● **BASAURI**

**Kultur Etxea.** Fernando Lazaro Belloren lanak. Urtarrilaren 27ra arte.

● **BILBO**

**Arte Ederretako Museoa.** 'Adquisiones de carteles antiguos'. Urtarrilaren 31ra arte. K.H. Hödickeren 36 pintura lan. Urtarrilaren 31era arte.

**Arteta.** Potxo Onandiaren 'Respirar en Bilbao' pintura erakusketa. Urtarrilaren 23ra arte.

**Rekalde.** T. Smithen eskulturak. Urtarrila osoa.

**Torres.** Fabeloren akuarelak. Urtarrilaren 30ra arte.

**Vanguardia.** Zaldunbideren lanak. Urtarrilaren 31era arte.

**Windsor.** Jon Mikel Euba, Itziar Okariz, Paco Polan, Anabel Quincoces, Sonia Rueda, Santi-Saiz eta Rita Sixtoren erakusketa kolektiboa. Urtarrilaren 31era arte.

**Ederti.** Irene Linaresen pinturak. Urtarrilaren 20ra arte.

● **DONOSTIA**

**San Telmo Museoa.** Abangoardia Aretoan Ricardo Iriarteren argazkiak. Otsailaren 7ra arte. 'Imajina ezazu Euskadi' lehiaketan saritutako pintura eta argazkiak. Otsailaren 2ra arte.

**Diozesiaren Museoa (Amara Berri).** '14 imágenes navideñas de Gipuzkoa' erakusketa. Urtarrila osoa.

**Garibai Aretoa.** Tomas Hernandez Mendizabalen pinturak. Urtarrilaren 29ra arte.

**Arrasate Aretoa.** Yoshiyasu Zenitaniren pinturak. Urtarrilaren 22ra arte.

● **EIBAR**

**Izane Galeria.** Emilio Garcia Ergüinen marrazkiak. Bihar azken eguna.

● **ELGOIBAR**

**Kultur Etxea.** Lurki taillerreko Trini Kruz eta Jose Juaristiren larru eta buztingintza erakusketa. Gaur azken eguna.

● **GASTEIZ**

**Amarika.** XIX. mendeko pintura espainola. Urtarrilaren 17ra arte.

**Luis de Ajuria.** Zeramika erakusketa. Urtarrilaren 15era arte. Trans-80 pinturen selekzioa. Urtarrilaren 31era arte.

**Aitor.** Eduardo Arroiaberen akuarelak. Urtarrilaren 19ra arte.

**Kordon Etxea.** 'El ahorro: un juego de ida y vuelta' kartelen erakusketa. Bihar azken eguna.

**Araba.** 'Trans-80' pintura erakusketa. Urtarrilaren 31era arte.

**Olagibel.** Fernando Callejaren pinturak. Urtarrilaren 28ra arte.

**Caruso kafetegia.** Michel Villaverderen oleoak. Otsailaren 6ra arte.

**Espacio 40.** Pintura erakusketa kolektiboa. Urtarrila osoa.

**Artelarre.** 'Alava vista por sus pintores' pintura erakusketa. Hilaren 28ra arte.

**Exposiciones.** 'Vitoria pintada por los rusos' eta 'Flores, bodegones, paisajes y marinas' pintura erakusketak. Urtarrila osoa.

**CM2.** Julio Hernandez Grimaren pinturak. Otsailaren 6ra arte.

● **GETXO**

**Algortako Kultur Aretoa.** Cruz Muroren oleoak. Urtarrilaren 16ra arte.

● **MUNGIA**

**Torrebillela Kultur Etxea.** Baudiren pintura erakusketa. Bihar azken eguna.

● **ORDIZIA**

**Barrena Kultur Etxea.** Iñaki Epelde eta Jose Luis Longaronen pinturak. Urtarrilaren 21era arte. Tren maketen erakusketa. Urtarrilaren 24era arte.

● **SESTAO**

**Musika Kontserbatorioa.** 'Polaroid', Tomás Longarteren argazki erakusketa. Urtarrilaren 16ra arte.

ARTXIBOA



# Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Bilbon izango da

Arriaga Antzokian kontzertua eskaintzeko 19.45ean. Orkestra En Shao txinatarrak zuzenduko du. Orkestrak Glinkaren 'Rouslan eta Ludmila', Mozarten '35. Sinfonia Re maiorrean' eta Ratxmaninoven '2. Sinfonia Mi menorrean' konposizioez osatutako emanaldia eskainiko du. Kontzertua abono barnekoa da eta bihar Gasteizen entzuteko aukera izango da.




## ZINEMA-BIDEOA

● **BARAKALDO**

**Gurutzetako Kultur Etxean** 'Barakaldo paso a paso' bideoa eskainiko da 19.30ean egunero urtarrilaren 21era arte.

● **BERGARA**

**Zine-kluba.** Novedades aretoan 19.30ean.

● **BILBO**

**'Lola Montes'.** Zuzendaria: Max Ophüls. Arte Ederretako Museoan 17.00etan.

● **DONOSTIA**

**George Kucharren bideoen emanaldia.** 'Rainy Season', 'Weather Diary' eta 'The Thursday People'. Larrotxene Kultur Etxean 20.15ean.

● **GASTEIZ**

**Peña Taurina elkarteak** bideo emanaldiak eskainiko ditu Luis de Ajuria Aretoan 20.00etan.

● **OÑATI**

**'Les Commitments'.** Santa Ana Antzokian 20.00etan.

## LEHIAKETAK

● **DONOSTIA**

**'Euskadi Irratia 93' Trikiti Pieza Berrien Lehiaketa.** Trikitixa eta Fandangoen txanda izango da aurten ere. Lanak aurkezteko epea otsailaren 14ean amaituko da. Lehiaketaren oinarriak eskuratzeko edota beste edozein informaziorako Euskadi Irratira deitu (☎ 42 36 30) eta J. A. Garmendiagatik galdetu.

● **DURANGO**

**'Urkiola bizirik' argazki lehiaketa.** Urkiolaren Aldeko Batzordeak antolatuta. Gehienez hiru argazki, 50x150 zm baino txikiagoak. Gaia: Urkiola. Lanak emateko epea otsailaren 19an amaituko da. Informazio gehiago: Pinondo Etxea.




## MUSIKA

● **BILBO**

**Artless eta CLGSE taldeak** konztertua eskainiko dute Gauekon 21.00etan.

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoak** kontzertua eskainiko du En Shao-ren zuzendaritzapean. Arriaga Antzokia 19.45ean.

● **DONOSTIA**

**Javier Arrillagak** autore desberdinen kantak abestuko ditu Okendo Kultur Etxean 20.00etan.

● **EIBAR**

**KTI taldeak** kontzertua eskainiko du Ryder-ean 21.30ean.

## BESTELAKOAK

● **ZARAUTZ**

**Malabarrak: pilotak, mazak, diaboloak, monozikloa...** Ikastolako gimnasialekuan asteazkenero 20.30etik aurrera.

## KRITIKA

# *Ispiluaren erabilera ezberdinak*

ASIER PEREZ

Gehiago ala gutxiago ziurtatutako 'behi sakratuen' ondoren, ikus Badiola, Tapies, Zumeta; bata New Yorketiuk ekarria nahiz eta bilbotarra izan, bestea hiru hilabete luzeegiz Rekalde Aretoan 'arrakastatsu' izanda eta azkena Euskadi osoan izandako erakusketak eta egunkarietan arte kritika epel gehiegi ondoren, oraingo honetan 'La imagen de sí' dugu. Baita suposatuko *krisiari* honen erantzunkizuna ematen zaio; *krisi* aro honetan 'kontzeptuzko' talde erakusketak ugaldu dira, testu batez —askotan justifikatzailea— lotutako arte lanak erakutsiz. Gaur eta hemen 'La imagen de sí' dugu, nahiz eta nik jakin ez testurik idatzi ote den, agian Christian Leighek 'Post-Human-entzako' idatzitakoa adibide baliagarritzat hartuz. Ba al da Jon Mikel Euba Charles Ray? Itziar Okariz Cindy Sherman? Edo eta Paco Polan Robert Goben? Anabel Quincoces, Sonia Rueda, Santi-Saiz, Rira Sixto... zeuek esan. Elementu fisiko eta erreferentzia autore beraren gorputzari —itxurari— egiteagatik hurbilduak dira, Paco Polanen lan zaharrek agerian jartzen dutenez, edo hiru titi pare duenaren anekdota.

Erakusketa osoan pinturaren ezak, beste medioen erabilpenari harrera ematen dio. Jon Mikel Euba barne, oraingoan lan eskultorikoak erakusten dizkigularik, instalazioarekin hurbiltasun argi batez nahiz eta berriro ere kokapena onena ez izan, beti diseinatutik —baita honekin mugak zehaztatuaz— hedaturik gaur moda, atzo irudi grafikoa. Moda. Itxura. Eta inoiz baino hobeto 'La imagen de sí' —edo agian irudiaren irudiaren irudia—, eta atzera Hidralux hori, gorri, urdinetara, gaur feldroz. Aurreko obrekin duen oroimenezko lotura bere 'imagen de sí' honek nahiz eta zehaztu gabekoa, honela ba aurkezpena zein aurreko lanen —garaien— erreferentzia argia ez da gelditu.

Itziar Okarizek argazkiak eta irudia erabiltzen ditu, zeinetan ez nintzateke ausartuko estremuzko sentiberatasunekoak direla esatera, are gutxiago emakumezkoa izanik eta argazki kamararen bisorearen objetibotasun eta ikuspuntua dela eta —azalgaitza da nola kamera baten enfokea objetiboa den esatea—. Okarizen argazkiak, non eskuari jositako ile-bilo bat dugun, inolako lizunkeriatan sartu gabe, neurtutako erotismo eta higuingarritasunaren artean.

Irudi delizioso delikatuek, kokapena dela eta, azaltze saio bat dirudite. Irudiak emandako objetibotasun bat dute —non grafismoa horrelako obejetibotasun ez izan pentsatu— baina lerro eskematiko eta naif horiek, abangoardia historikoa gogorarazten digutenak, standarizatutako irudi moeta azalpen legez, nola-josi-behar-den-ile-bilo-bat.

### 'LA IMAGEN DE SI' ERAKUSKETA

**Non:** Windsor Galerian. **Hiria:** Bilbo. **Noiz arte:** urtarrila amaitu arte.